

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBIAK ETA ERREKAK
ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN ALDAKETA -
ISURIALDE KANTAUARIARRA-**

1. MEMORIA

2007KO URRIA

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN
ARLOKO PLANAREN ALDAKETA -ISURIALDE KANTAUARIARRA-**

1. MEMORIA

AURKIBIDEA

1.	<u>AURREKARIAK. LEGE ESPARRUA.</u>	1
2.	<u>ALDAKETAREN XEDEA</u>	4
3.	<u>ALDAKETAREN EDUKIAK</u>	5
4.	<u>ALDAKETAREN ESPARRUA</u>	6
5.	<u>ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA</u>	7

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IBIAK ETA ERREKAK ANTOLATZEKO LURRALDEAREN ARLOKO PLANAREN ALDAKETA -ISURIALDE KANTAUARIARRA-

1. MEMORIA

1. AURREKARIAK. LEGE ESPARRUA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana –isurialde kantauriarra– abenduaren 22ko 415/1998 Dekretu bidez onartu zen behin betiko. Horretarako, Lurraldearen Antolamendurako Artezpideetako Ingurune Fisikoaren Antolamendua kapituluan ezarritakoari jarraitu zitzaion, eta bertan finkatzen diren irizpideak xehatu ziren.

Plan hori oso antolamendu-dokumentu baliagarria dugu ibaien ertzetako lurralde sentikor horiei tratamendu integratua emateko, betiere lurralde horien ingurumen-balioak, problematika hidraulikoa eta hirigintza-arloan duten ahalmena kontuan izanik.

Lurraldearen Arloko Planak, izenak berak adierazten duen bezalaxe, modu integratuan jasotzen du lur gaineko ibai-ibilguen ertzen antolamendua. Arau Orokor batzuk eta Arau Partikular batzuk ezartzen ditu, eta lurralde horien antolamenduan esku hartzen duten hiru osagaien arabera egituratu ditu: ingurumen-osagaiaren arabera, osagai hidraulikoaren arabera eta hirigintza-osagaiaren arabera.

Erregulazio hidraulikoaren araberako Araudiari dagokion kapituluan jaso denez, uholdeen arriskua kudeatzean, prekauzioaren printzipioa hartu behar da aintzat, uholde-

arriskua ebaluatzeko eta kudeatzeko artezpidearekin bat eginez. Izan ere, ahal den lekuetan saihestu egin beharko da arrisku hori, eta gainerako lekuetan murriztu egin beharko da –ez da inola ere arrisku hori areagotuko–.

Horrela, ur-goraldien araberako uholde-arriskuari buruzko mapa eguneratuak egin dira. Bestalde, aurretik adierazitako printzipio horiek eta III. Iparraldeko Plan Hidrologikoaren irizpideak –isurialde kantauriarreko Lurraldearen Arloko Planaren kasuan– erregulatu dira (E.1. araua).

Uren Legearen Testu Bateginaren 11. artikulua honakoa ezartzen du (uztailaren 20ko 1/2001 Legegintzako Errege Dekretua):

11. art. Urpean gera daitezkeen zonak

- 1.- Lakuen, aintziren, urtegien, ibaien edo erreken ezohiko ur-goraldietan urpean gera daitezkeen lurrek aurretik duten kalifikazio juridikoari eta jabari-titulartasunari eutsiko diote.
- 2.- Arroko organismoek esku artean dituzten uholdeei buruzko datuak eta azterlanak helaraziko dizkiete lurralde-antolamenduaren eta hirigintzaren arloan eskumena duten Administrazioei. Horrela, alderdi hori hartu ahal izango da aintzat lurzoruaren plangintza egitean eta, zehazki, urpean gera daitezkeen zonetan erabakitzen diren erabilerak baimentzean.
- 3.- Gobernuak urpean gera daitezkeen zonetan pertsonen eta ondasunen segurtasuna bermatzeko beharrezko mugak ezarri ahal izango ditu Errege Dekretu bidez. Autonomia Erkidegoetako gobernu-kontseiluek, gainera, erregulazio horretarako arau osagarriak ezarri ahal izango dituzte.

Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana onartu ostean, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Uren Zuzendaritzak hainbat azterlan hidrauliko egin ditu Euskal Autonomia Erkidegoko ibaiek eta errekek ur-goraldietan urpean uzten dituzten eremuak definitzeko eta/edo eguneratzeko.

Era berean, Administrazio Hidraulikoak, Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzarekin hitzartuta, lurzoru uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideen proposamena idatzi du. Proposamen hori Lurraldearen Arloko Plan honen E.1. epigrafean txertatu beharko da. Irizpide horiek –E kapituluko uholdeen prebentzioari eta

erregulazio hidraulikoari buruzko berariazko araudiaren gainerakoarekin batera– urpean gera daitezkeen zonetako erabilerak erregulatzeko arauak izango dira.

Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren indarraldian Natura 2000 Sarea ezarri da Euskal Autonomia Erkidegoan.

Natura 2000 sarea kontserbaziorako zona berezien Europako sare ekologikoa da. Sarea Garrantzi Komunitarioko Lekueta oinarritu da. Zona horietan desagertzeko arriskuan diren espezieak edo habitatak biltzen dira, eta horiek kontserbazio-egoera egokian mantentzea izango da azken helburua (habitategi buruzko 92/43/EEE Arteztaraua, habitat naturalak eta basafauna eta basafloa kontserbatzeari buruzkoa).

Natura espazioak eta basafauna eta basafloa kontserbatzeari buruzko martxoaren 27ko 4/1989 Legea aldatu zuen 43/2003 Legeak gauzatu du Arteztarau hori Espainiako Estatuan. Nolanahi ere, II. bis kapitulu txertatu zen bertan (“Natura 2000 Europako Sare Ekologikoari buruzkoa”), eta kapitulu horrek hiru artikulatu ditu: 20bis, 20ter eta 20quater (Natura 2000 Europako Sare Ekologikoari buruzkoa, Kontserbaziorako Zona Bereziei buruzkoa eta Hegaztiak babesteko zona bereziei buruzkoa, hurrenez hurren). Arau horiek oinarritzkoak dira 43/2003 Legearen Azken Xedapenetako Lehengoaren arabera.

Aldi berean, 4/89 Legearen 21. artikulua aldatu zen, eta honela geratu da: “1. Autonomia Erkidegoei dagokie haien esparruko Natura 2000 Europako Sare Ekologikoaren zonak, parkeak, erreserba naturalak, monumentu naturalak eta paisaia babestuak deklaratzeko eta kudeatzeko, hurrengo kapituluaren ezarritakoaren kalterik gabe eta Estatuko eskumenen kalterik gabe –batez ere lurralde-itsasoari dagokionez–”.

Horrenbestez, Estatuko oinarritzko legeriak Natura 2000 Sarearen antolamendu juridikoa bildu du, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio haren legegintzako garapena. Oinarritzko arau horiek gauzatzeko ere Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio.

Araudi horren aplikazioan, eta 1997ko abenduaren 23ko, 2000ko azaroaren 28ko

eta 2003ko ekainaren 10eko Gobernu Kontseiluaren Erabaki bidez, onartu ziren Euskal Autonomia Erkidegoko Garrantzi Komunitarioko Lekuen zerrenden proposamenak.

Euskal Autonomia Erkidegoan eskualde biogeografiko atlantikoko eta mediterraneoko lurraldeak daude. Europako Batzordearen 2004ko abenduaren 7ko 2004/813/EE Erabakiak eta 2006ko uztailaren 19ko 613/2006/EE Erabakiak bi eskualde biogeografiko horietako Garrantzi Komunitarioko Lekuen zerrendak onartu zituzten, Kontseiluaren 92/43/EEE Arteztarauaren arabera.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Natura 2000 Sarean ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku deklaratu diren 15 espazio daude: Arakil, Araxes, Artibai, Ayuda, Baia, Barrundia, Ebro, Ega-Berron, Lea, Leitzarain, Oria Garaia, Omecillo-Tumecillo, Urumea, Zadorra ibaiak eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren ibai-sarea.

Euskal Autonomia Erkidegoan ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku izendatu diren 15 espazioek guztira 876,5 km lineal hartzen dituzte ibilguetan (286 km Araban, 481 Bizkaian eta 109 Gipuzkoan). 77 udalerritan dute eragina: 27 Araban [Armiñón, Arraia-Maeztu, Arrazua-Ubarrundia, Asparrena, Baños de Ebro/Manueta, Barrundia, Berantevilla, Bernedo, Campezo/Kanpezu, Elciego, Iruña de Oca/Iruña Oka, Kuartango, Labastida, Lagran, Laguardia, Lanciego/Lantziego, Lantaron, Lapuebla de Labarca, Legutiano, Ribera Alta, Ribera Baja/Erribera Beitia, San Millán/Donemiliaga, Urkabustaiz, Valdegovia, Vitoria-Gasteiz, Zambrana eta Zuiako udalerrietan]; 28 Bizkaian [Ajangiz, Amorebieta-Etxano, Amoroto, Arratzu, Arrieta, Aulesti, Bermeo, Berriatua, Busturia, Ereño, Errigoiti, Forua, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Gizaburuaga, Ibarrangelu, Kortezubi, Lekeitio, Mallabia, Markina-Xemein, Mendata, Mendexa, Mundaka, Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz, Muxika, Nabarniz, Ondarroa eta Sukarrietako udalerrietan]; eta 22 Gipuzkoan [Alegia, Altzo, Andoain, Arama, Ataun, Beasain, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernani, Ikaztegieta, Lazkao, Leaburu, Legorreta, Lizartza, Ordizia, Segura, Tolosa, Urnieta, Villabona, Zaldibia eta Zegamako udalerrietan].

Ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku izendatutako 15 espazio horien lurralde-erregulazio zuzena bermatu behar da. Horretarako, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Biodibertsitate Zuzendaritzak adierazi duenez, ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku horien identifikazioa eta kokapena txertatu beharko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana

aldatzeko dokumentu honi. Hortaz, bidezko Araudian leku horien berariazko erregulazioari buruzko epigrafe zehatza gaineratu beharko da. Hori dela eta, Lurraldearen Arloko Planaren dokumentu aldatuaren Araudiari D.2.3. epigrafea txertatu zaio, eta beste eranskin bat erantsi zaio –2000 Natura Sarearen barruan Euskal Autonomia Erkidegoan ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku izendatutako 15 espazioen zerrenda eta kokapen-mapa jasoko duena–.

Era berean, Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana onartu ostean, Europar Batasunak Uraren Esparru Arteztaraua onartu du –uren politikaren arloan jarduteko esparru komunitarioa ezartzen duen urriaren 23ko 2000/60/EE Arteztaraua–. Era berean, Eusko Legebiltzarrak Uraren Legea onartu du (1/2006 Legea, ekainaren 23koa). Hortaz, Aldaketa honen helburua da Lurraldearen Arloko Planaren zehaztapenak egokitzea Uraren Esparru Arteztaraura –2000/60/EE– eta Eusko Legebiltzarraren uraren 1/2006 Legea.

Era berean, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2002 Dekretua onartu ondoren, Lurraldearen Arloko Planaren honako aldaketa hau ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren mende egon beharko du. Horrenbestez, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlana gaineratu beharko zaio dokumentuari.

Azkenik, hainbat planek eta programek ingurumenaren gainean dituzten eraginak ebaluatzeari buruzko apirilaren 26ko 9/2006 Legea onartu ostean, eraginpean dauden herri-administrazioei eta publiko interesdunari kontsulta egin beharko zaie Lurraldearen Arloko Planaren honako aldaketa hau hasiera batean onartu aurretik.

Hori dela eta, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saila Lurraldearen Arloko Planaren honako Aldaketa honetaz baliatu da izendapena sinpleago egiteko eta ertzei buruzko aipamena ezabatzeko. Honela geratuko da, beraz, izena: Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Plana.

2. ALDAKETAREN XEDEA

Honakoa da “Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeke Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa –isurialde kantauriarra–” dokumentuaren xedea:

- Izena sinpleago egitea, ertzei buruzko erreferentzia ezabatuz.
- Lurraldearen Arloko Planaren Araudian txertatzea Uren Zuzendaritzak landutako “Lurzorua uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideak”.
- Lurraldearen Arloko Planean txertatzea Uren Zuzendaritzak berriki landu dituen uholde-arriskuari buruzko mapa eguneratuak eta Uren Zuzendaritzak landutako "Azterlan hidraulikoak diseinatzeko irizpide teknikoak" dokumentua.
- Ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku izendatutako ibai-tarteen berezko erregulazio gisa aplikatuko diren arauzko zehaztapenen erreferentzia zehatza txertatzea Lurraldearen Arloko Planaren Araudiari -Europako Kontseiluaren 92/43/EEE Arteztarauari jarraituz, Europako Batzordearen 2004ko abenduaren 7ko 2004/813/EE Erabakiak eta 2006ko uztailaren 19ko 613/2006/EE Erabakiak onartu zituzten leku horiek-.
- Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak helarazitako Natura 2000 sareko ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Lekuen zerrenda eta horien kokalekuen mapa Lurraldearen Arloko Planaren eranskin gisa txertatzea.
- Lurraldearen Arloko Planaren edukiak Uraren Esparru Arteztarauaren xedapenetara -2000/60/EE- eta Eusko Legebiltzarreko 1/2006 Uraren Legea egokitzea.
- Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak eta Uren Zuzendaritzak adierazitako akats batzuk zuzentzea eta arauzko doikuntza batzuk egitea.

3. ALDAKETAREN EDUKIAK

Lurraldearen Arloko Planaren aldaketa honek eduki hauek ditu:

- Lurraldearen Arloko Planaren aurrekariak, lege-esparrua, xedea, edukiak, esparrua eta justifikazioa azalduko dituen memoria.
- Araudiaren dokumentuaren idazketa berri osoa, Lurraldearen Arloko Planari txertatutako eduki berriak jasoko dituena:
 - C Uren Zuzendaritzak landutako “Iurzoria uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideak” jasoko dituen E.1. epigrafe berria.
 - C 92/43/EEE Arteztarauaren arabera (abenduarien 7ko 2004/813/EE eta uztailaren 19ko 613/2006/EE Erabakien arabera), ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku izendatutako espazioen berriazko araudiari buruzko D.2.3 epigrafe berria, betiere Biodibertsitate Zuzendaritzak landutako testuari jarraituz.
 - C Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak eta Uren Zuzendaritzak adierazitako zenbait arauzko egokitzapen.
- Honako dokumentazioa Lurraldearen Arloko Planaren eranskin gisa txertatzea:
 - C Uren Zuzendaritzak egindako uholde-arriskuari buruzko mapa eguneratuak (Uren Zuzendaritzak egin dituen edo homologatu dituen azterlan hidraulikoen emaitza gisa landutakoak).
 - C Uren Zuzendaritzak landu duen “Azterlan hidraulikoak diseinatzeko irizpide teknikoak” dokumentua.
 - C Europako Kontseiluaren 92/43/EEE arteztarauaren bidez Natura 2000 Sarearen barruan ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku gisa onartutako espazioen zerrenda eta kokapen-mapa –Europako Batzordearen 2004ko abenduaren 7ko 2004/813/EE eta 2006ko uztailaren 19ko 613/2006/EE Erabakiek onartu dituzte leku horiek–.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko

Plana –isurialde kantauriarra– aldatzeko dokumentu honi, bestalde, ingurumen-
inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlana gaineratu zaio –183/2003
Dekretuaren xedapenei jarraituz–.

4. ALDAKETAREN ESPARRUA

Indarrean dagoen Ibaien eta Erreken Ertzak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren esparru osoa da Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa honen esparrua.

5. ALDAKETAREN JUSTIFIKAZIOA

Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa –isurialde kantauriarra– guztiz justifikatuta dago. Izan ere, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren Lurraldearen Antolamendurako Zuzendaritzak, Uren Zuzendaritzak eta Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzak erabaki dute honako alderdi hauek txertatzea Lurraldearen Arloko Planaren dokumentuari: lurzorua uholde-arriskuaren mailaren arabera erabiltzeko irizpideak eta uholdeari buruzko mapa berriak –Uren Zuzendaritzak landuak–; Natura 2000 Sarearen barruan ibai-arloko Garrantzi Komunitarioko Leku gisa izendatutako espazioen berariazko erregulazioa; eta espazio horien identifikazio eta kokapen planimetrikoa –Biodibertsitaterako eta Ingurumen Partaidetzarako Zuzendaritzaren adierazpenen arabera–. Horrez gain, Zuzendaritza horiek erabaki dute Lurraldearen Arloko Planaren edukiak Europar Batasunaren Uraren Esparru Arteztarauaren xedapenen arabera homologatzea (2000/60/EE), baita Eusko Jaurlaritzaren Uraren 1/2006 Legearen arabera homologatzea ere –biak Lurraldearen Arloko Plana indarrean jarri ondoren onartuak–.

Aldaketa ez funtsezkotzat joenez gero, aldaketa bideratzeko irailaren 9ko 206/2003 Dekretuan ezarritako prozedurari jarraituko zaio.

Era berean, eta ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren prozedura arautzen duen uztailearen 22ko 183/2003 Dekretua onartu ostean, ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioaren izapidearen mende egongo da Lurraldearen Arloko Planaren Aldaketa. Hori dela eta, Aldaketa honi ingurumen-inpaktuaren baterako ebaluazioari buruzko azterlana gaineratu zaio. Espedientea, halaber, aurreikusten den kontsulta-izapidearen mende egongo da –berriki onartu den hainbat planek eta programek ingurumenaren gainean dituzten eraginak ebaluatzeari buruzko apirilaren 28ko 9/2006 Legean aurreikusten den izapidea da–.